



Udaberriko usainak Okendo plazan. - Larunbat goizean goizetik hamaika koloreetako loreek bizia eman zioten Okendo plazari. Nahiz eta eguerdian eurian egin, ugariak izan ziren goizean zehar IV. Lore eta landare azokan barrena ibili ziren herritarrak. Loreez gain, landareak, hazi eta belar medizinalak, xaboi naturala, tornuan landutako zura, lore eta landareekin egindako bitxiak eta imitaziozko bitxiak, lore prentsatuarekin egindako koadroak edo ornamentuzko landareak erosi edo ikusi ahal izan zituzten plazara hurbildu zirenek. Etxeko txiki eta gazteek ez zuten aspertzeko astirik izan, egurrezko jokoez gozatzeko txokoaz gain, aurten eskulanak egiteko aukera izan zuten. Tailerretan lore prentsatuarekin koadroak edo loreontziak apaindu eta landare landaketa egiten ikasi zuten eta amaitzean, egindako lana etxera eraman ahal izan zuten gainera. Era honetako ekintzekin Udalak herriko komertzioa sustatu nahi du. Izan ere, laugarren urtez egin den azoka honen helburu nagusia asteburuetan herritarrak kalera atera eta Lasarte-Orian erosketak egitea baita.

2 UDALTOP

Kirola eta gazteen hizkuntza ohiturak aztergai

Lasarte-Oria Euskara Batzorde kide eta euskara adituen bilgune izango da berriz ere aste honetan. Ostegunetik ostiralera, gazteen kirol jardunean euskararen erabilera eta hizkuntza ohiturak aztertuko dituzte, baita hauetan nola eragin ere. Hitzaldiak, mahai-inguruak eta elkarriketa bat ere izango dira aurtengo topaketan.

3 GIZARTE ZERBITZUAK

Atsobakar zahar-egoitzak plaza gehiago eskainiko ditu

Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Atsobakarreko zahar-egoitzako plazak hitzartu dituzte. Akordio honen arabera, egoitzan 4 plaza gehiago eta eguneko zentroan 10 gehiago eskainiko dira. Hala ere, herriko eskaria handia denez, plaza horiek dagoeneko esleituak daudela jakinarazi du Udalak.



5 MULTIKULTUR FEST

Lasarte-Oriako kultura aniztasuna ospatzen

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeke Burunzpe guraso elkarteak hainbat elkarte eta talderen laguntzaz antolatutako Multikultur Fest asteak larunbatean amaiera handia izan zuen. Haurrentzako tailer eta jokoak, paella jana herrikoia, herrialde ezberdinetako musika emanaldiak, janari dastaketa... herritar ugari hurbildu zen ekintzetan parte hartzera.

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

ERLAXATU ETA BABESTU
ZURE BEGIAK
ordenagailu, tablet, mugikor... pantailetatik

ESSILOR EYEZENEKIN,
EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK OPARI

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Errepertorio zabala eskainiko du Aqua Lauda abesbatzak

Brigitarren komentuan abestuko dute ostiraleko 19:30etik aurrera

X. Musika Topaketako ekitaldiek aurrera darraite. Danok Kide guraso elkarteak antolatuta, ostiralean arituko da Aqua Lauda abesbatza Brigitarren komentuan. Errepertorio anitza kantatuko dute, garai askotako abestiak interpretatuz.

Danok Kideren eskutik, Aqua Lauda abesbatza arituko da Brigitarren komentuan ostiral honetako 19:30ean.

Musika Topaketen X. edizioaren barneko ekitaldia da.

Ahots femeninoak

2014an sortutako abesbatza da Aqua Lauda. Ahots femeninoentzat pentsatutako partiturak abestuko dituzte. Izan ere, gehienbat emakumez osatutako taldea da; 19 andrazkok eta gizonezko batek kantatzen dute.

Andrazko koruentzat idatzitako musika zabaltzea da sorrerako helburuetako bat, diotenez.

Hiru solista dituzte: Montse Latorre herritarra –sopranoa–, Mario Hernandez eta Pili Anuncibay –altua eta mezzoa–.

Errepertorio anitza

Mundu osoko musika jorratuko dute; diotenez, "bai sakroa baita profanoa ere". Erdi aroko piezetatik hasita garaikideak diren moldaketaraino.

Esaterako, Kalistoren Kodexeko ereserkiak edota Pablo Neruda poesiagilearen 'Tu risa' poemaren moldaketa abestuko dituzte

Esperientziadun zuzendaria

Javier Bustoren zuzendaritzarenpean arituko dira. Pertsona "egongaitza" da, eta eskarmentu handia du musikan.



Aqua Lauda lehengo urteko Brigitarren komentuan egindako emanaldian.

Hau ez da zuzentzen duen lehenengo abesbatza. Izan ere, 1974az geroztik dabil zuzendari lanetan. Urte askotan Hondarribiko Eskifaia Abesbatza zuzendu du eta, besteak beste, AEBetan, Japonian, Mexikon, Venezuelan eta Europako herrialde askotan eskaini ditu kontzertuak.

Aqua Lauda abesbatza gaztea da, hiru urte beteko baititu aurten. Malagan, Nafarroan, Jakan edota Castro Urdialesen aritu dira orain arte. 2016an, gure herrian izateaz gain Laredon eta Gijonen izango dira.

Lasarte-Orian ez dira arrotzak. Lehengo urteko San

Joan bezperako ospakizunetako aurrekari gisa, Brigitarren komentuan abestu zuten.

Ostiralean leku berean izango dira. Bertaratutakoek arratsalde atsegina igarotzea espero dute. Diotenez, beraien "helburu bakarra entzuten dituzten pertsonen bihotzera iristea da".

Gazteen euskarazko kirol jarduna ikusmiran

Udaltop, Udaletako euskara zerbitzuen topaketak Manuel Lekuona kultur etxean egingo dira ostegun eta ostiralean. Aurtengoa 'Kirola D eredu, noizko?' izendatu dute.

Jaurlaritzako HPSko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziozko zuzendari Jorge Gimenezek topaketan aurkezpenean nabarmendu zuenez "gaurkotasan eta lehentasun handiko gaia" da, "kirol jardunak berebiziko garrantzia duelako gazteen hizkuntza ohiturak finkatzeko".

180 bat euskara aditu bilduko dira Topaketetan eta

hamar ponentzia, bi mahai-inguru eta elkarrizketa bat izango dira guztira.

Bi mahai inguru

Ostegun goizeko 09:00etan hasiko dira jardunaldiak. Bazkalordua iritsi bitartean ponentzia ugari eta anitzak entzun ahal izango dira. Besteak beste, kirol teknikariek, irakasleenak edota kazetariak.

Bazkalostean bi mahai-inguru egingo dituzte ordu berean. Bi gai jorratuko dituzte horietan. Lehenak "Nola kudeatu euskara gaztetxoek kirolerik eliteko jarduerarai-

no?" du izena, eta bigarrenak "nola eragiten ari gara gaztetxoek kirol jarduerako hizkuntzan gure herrian?".

Bigarren eguna zenbait ponentziak osatuko dute. Irungo eta Zarauzko Udaleko edota Arabako Foru Aldundiko kideek hitz egingo dute, besteak beste, baita Soziolinguistika klusterreko Pablo Suberbiola herritarrek ere. Halaber, Gaizka Garitano futbol entrenatzaileari elkarrizketatxo egingo diote.

Gazteen kirolari eta euskarari buruz, beraz, asko hausnartuko da aste honetan Lasarte-Orian.



Peruko hezkuntza eta gizartea aztertzen


Lasarte-Oriara beste herrialdeetako errealitatea ekartzeko herriko gazte talde batek 'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' hitzaldi zikloa antolatu du. Kuba, Sahara edo Palestinari buruz hitz egin dute dagoeneko. Larunbatean, Peru izan zen hizpide.

Nerea Arteaga eta Uxue Iparragirrenen eskutik, Villa Mirentxura hurbildu ziren herritarrek bertako hezkuntza sistema, ohiturak eta bizimoduaz egutu ahal izan zuten.

Peruko hainbat objektu erakutsi eta bertako jakiak ere dastatu ahal izan ziren hitzaldiaren ostean.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ATSOBAKAR

Plaza berriak hitzartu dira

Egoitzak 4 egoilar berri izango ditu eta eguneko zentroak 10

Gipuzkoako Foru Aldundiak Atsobakar zahar-etxearen kudeaketa beregain hartzeko pausoak ematen ari da. Lehengo astelehenean Kontseiluak Lasarte-Oriako Udalarekin duen hitzarmena zabaltzea onartu zuen. Honi esker, egoitzan eta eguneko zentroan hutsik zeuden plazak bete ahalko dira.



Atsobakar egoitzean hutsik zeuden plazak bete ahalko dira.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballos pozik agertu da, Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Atsobakar zahar-egoitzarako hitzartutako plaza kopuruarekin.

Bi erakundeek egoitzan 4 plaza eta Egunezko Zentroko 10 plaza erabilgarri izatea adostu dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere begi onez ikusi du akordioa. Lasak begi onez ikusi du hitzarmena, "itxaron zerrendak murrizteko" urrats garrantzitsua izango dela eta eskualdeko pertsonen "bizi-kalitatea" hobetuko duela argudiatuz.

Plazak beteak dagoeneko

Egoitzako plazak aste honetan bertan, apirilaren 15ean, sartuko dira indarrean; eguneko zentrokoak, berriz, maiatzaren 1etik aurrera izango

dira erabilgarri. Baina Udalak aurreratu duenez, plaza hauek dagoeneko beteak daude.

Eskaera bati erantzuna

Akordio honek, Lasarte-Oriako zegoen plazaren eskari sozial benetako bati erantzuna ematen dio alkatearen hitzetan, "plaza hutsak egonik haiek ez ziren betetzen eta hori ulertzeko oso zaila zen".

Era berean, akordio honi esker, Atsobakar zahar-etxean gaur egun duten defizita 159.431 euroan gutxituko dela ere jakitera eman du. "Horrek lasaitu on bat emango dio udalaren diru-kutxari, eta kopuru hori beste helburu batzuetara zuzendu ahalko dugu".

Hau guztiaz gain, alkateak hitzarmen hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Atsobakar zahar-etxea osorik eta behin

betiko bere gain hartzeko akordioa betetzearen bidean aurrerapauso bezala definitu du. Eta oraingo udal-gobernu taldeak aurtengo urterako helburu hori duela azpimarratu du.

Gizarte Zerbitzuen mapa

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakitera eman duenez, neurria bat dator Diputatuen Kontseiluak 2015eko ekainaren 2an onartutako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 bitarteko Mapan finkatutakoarekin. Bertan, besteak beste, zehazten dira adineko mendeko pertsonentzako eguneko zentroetan eta egoitza zentroetan dagoen plaza premiari aurre egiteko lehen-tasuneko esku hartzeak.

Jarduketa horien artean dago Buruntzaldean 4 plaza sortzea egoitzan, eta 10 eguneko zentroan.

EUSKAL INAUTERIAK

Bilera asteazkenean

Euskal Inauteriak konpartsako lagunek hurrengo urtera begira, egitasmo berriua landu nahi dute eta hau aurrera eramateko herritarren laguntza beharko dute. Hori dela eta, bilera berezia egingo du apirilaren 20an, 18:30etik aurrera, Villa Mirentxun.

Euskal Inauterien konpartsaren planteamendu berria eta bere helburuak azaltzeaz gain, aldaketaren zergatia eta hemendik aurrerako ildoak azalduko dira.

Izan ere, Euskal Inauteriak oinarri dituen baina Lasarte-Oriako identitatea mantendu eta esanahi propioa duen egitasmoa antolatu nahi baitute.

Lanketan parte hartu nahi duten herritarrei bilerara hurbildu eta bidelagun izatera gonbidatzen ditu taldeak.

ELKAR SARIAK

Gotzon Huegun Ibilbidearen Elkar sariaren egile

Elkar Fundazioak apirilaren 21ean, osteguna, arratsaldeko 19:30etik aurrera lehenengoz Elkar sariak banatuko ditu. Honekin batera Joseba Jaka bekaren irabazle nor den jakinaraziko dute.

Sari berri hauen barruan, urtero ibilbidearen elkar saria banatuko du. Saridunari urtero emango zaion artelanaren egile Gotzon Huegun eskultore herritarra dugu.

Egurrez egindako obra da eta egilearen hitzetan, "gaur eguneratzeko prozesua, elkarlana, ibilbide baten jarrera" izan zituen buruan egiterakoan.

Aurten Gerediaga elkarteak hartuko du saria, 50 urtez Durangoko Azoka antolatuz egindako lanagatik.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOAK

Umore-terapia tailerra

Emakumeen Zentro Zibikoak apirilaren 27an, 18:00etatik 20:00etara, 'Umorekin hobeto zaintzen garelako' umore-terapia tailerra antolatu du.

Ikastaroa Nagore Vazquez psikologoak eskainiko du eta umorea eta barrearekin zer ikusia duten hainbat dinamika eramango dira aurrera.

Izena ematea Emakumeen zentroan bertan egin behar da apirilaren 22a baino lehen.

Zentroko arduradunek lasarteoriatarak saioan parte hartzerantz animatzen dituzte.

UDALA

Ez ohiko Udalbatzarra

Lasarte-Oriako Udalbatzarrek ez ohiko udalbatzarra egingo du gaur, 09:30etik aurrera. Honetan kreditu gehigarrien bidez 2016/1 kreditu dosierra aldatzeko proposamena aztertuko da.

Egañaren solasaldiak bertso eskolako urteurrenari hasiera emango dio

Ostegunetik igandera, Lasarte-Oriako Erra! Bertso eskolak bere 25. urteurrena ospatuko du. Solasaldia, bertso-saioak eta bazkaria antolatu dituzte eskolako kideek.

Ospakizunei hasiera ederra emango diete, ostegunean, Andoni Egañak herritarrekin solasaldia egingo du eta. Bertsoak, erritmoa, doinuak, ideiak... Xirimiri elkarteak hurbiltzen direnek bertsoaren munduari buruz dituzten zalantzak argituko ahalko dituzte. Hitzordua 19:30etan da.

Ostiralean, Lasarte-Oriako eta Gabiriko bertso eskolen arteko desafioa jokatu da.

Patxi Etxeberria, Unai Muñoa eta Ane Labaka Erra! bertso eskolako kideek Eusebio Igarzabal, Endika Igarzabal eta Aratz Igarzabal izango dituzte aurrez aurre.

'Bertsotruk' lehiaketaren barruko ekintza dugu eta 'etorriko partida' da hau, otsailaren 26an herritarrek Gabiriri izan baitziren.

Jalgi Kafe antzokian, 22:30etik aurrera, gozatu ahalko da erronka honetaz.

Larunbatean, apirilaren 23an, aldiz, bertso eskolako ikasle eta ikasle ohiak Xirimiri elkarteko mahaien bueltan batuko dira. Bertan bazkari gozoa dastatu eta bazkal oste berezia izango dute.

Azkenik, igandean 19:00etan, 'Ez da kasualitatea' bertso-saioa izango da Furia Beltza tabernan.

Oihana Iguaran, Miren Amuritz, Alaia Martin eta Ane Labaka herritarrek besteak beste, umorea, jolasa, emakumeen konplizitatea, musika eta bertsoak nahasten dituen emanaldia eskainiko dute.

Amaia Agirre izango da gai jartzaile lanetan. Ixak Arruti gitarra joleak eta Eneko Sierra saxofonistak saioa girotuko dute.

Erra! bertso eskolako kideek bertsozale eta herritarrek animatzen dituzte ekin-tzetara hurbiltzera.



Eskolarteko lehiaketa

Bestalde, Oinak buruan eskolarteko lehiaketan bertso-pa-per lehiaketako sariak banatu ziren atzo Eibarren izan zen

Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunean. DBH 2. Ziklo eta Batxilergo mailan Lierni Rekondo herritarrek aipamena eskuratu du.



Margoak, arkatzak, ikatz-ziriak, espraiak... beharrezko material guztia ekarri zuten Guztion Lasarte-Oria! mural lehiaketako finalistek egokitutako hormetan haien lanak irudikatzen.



Forma abstraktuak eta irudiak nahasten dira hainbat lanetan.

Lasarte-Oria apaintzen

Bost artistek hain lanak hormara eramán zituzten

Larunbatean, Guztion Lasarte-Oria! lehiaketako finalaz gozatu ahal izan zuten artezaletuek. Lasarte-Oriako bost txokoetan artistak lanean ikusteko aukera izan zen. Esprai, margo edo beste teknika batzuk erabiliz herriko hormak biziberritu zituzten.

TXINTXARRI

Madril, Irun, Gasteiz, Getxo eta Donostiatik etorri ziren larunbatean bost artista Lasarte-Oriako horma degradatuak apaintzera.

Bakarrik edo lagunduta, zirriborrotik artelanera haien ikatz-ziri, margo, esprai edo pintzelekin lan egin zuten Guztion Lasarte-Oria! mural lehiaketako finalistek asteburuan zehar. Izan ere, igandean, lana amaitzen edo azken ukituak ematen egon baitziren batzuk.

Forma abstraktuak, pertsonak, kolore alaiekin edo zuri-beltzean margotutakoak gustu guztiei zuzendutako lanak aurki daitezke.

Lanak

Pablo Astrain Gonzalez getxotarraren 'Te vé' lana Kale Nagusiko 6 zenbakiko pasabidean dago. Horma baten gainetik begira dagoen pertsona bat da.

Hipodromo Etorbide hasierako horman Madrilgo Jorge Gordillo Martinezek zaldia eta hockey-a marraztu ditu 'Corazón' lana dugu.

Ganbo 34 zenbakian Ane Arsuaga Iraola donostiarraren 'Begirunez beteriko begiradak' lanaz gozatu daiteke.

Bestetik, bi lan oraindik amaitu gabe daude. Sagardotegi kalean, Gasteizko Aleksei Lacalle Diaz artistaren 'Udaberria' eta Irungo 'Artitadeto' artista elkartearen 'Diversidad' lana, Iñigo de Loiola kalean.

Epai-mahaia

Epai-mahaiko kideak, Fernando Golvano arte kritikaria, Gotzon Huegun eskultorea, Julian Toquero disenaitzailea, Ramon Ormazabal Aterpe Merkatarien elkarteko lehendakaria eta Eva Lizarraga programaren udal arduraduna gaur bilduko dira, lanak aztertu eta sarituak erabakiko dituzte.

Apirilaren 30ean berri, sari banaketa ekitaldia izango da.

Pintxoak Berasategiren aholkuekin hornituz

Pintxo ibilbideko irabazle atera zen Santxo tabernako Asun Apeztegia Martin Berasategi jatetxean izan zen ostiral goizean.

Lehiaketako epailea zen hiru michelin izardun sukaldaria, eta parte hartzaileak gonbidatu zituen bere jatetxera. Hala, euren pintxo, ogitarteko edota espezialitate gastronomikoak hobetzeko aukera izango dute.

Berasategi lehenengo postuarekin saritu zuen Santxoko perretxiko bete eta, bere laguntzaileekin batera, mokaduari beste buelta bat ematen lagundu dio.

Sukaldari buru Xabier Goikoetxeak azaldu duenez "egin-garria den errezeta" irakatsi diote, eta aldi berean "tabernan erraz egiteko modukoa dena".

Berasategiren 'Perretxiko beteak Duxelle erara' egin dituzte. Edozein tabernak egunerokotasunean erabiltzen dituen produktuekin egin daitezke. Gainera, soberan geratutako elikagaiak berrerabili ahal dira. Beraz, zaporetsua izateaz gain, ekonomikoa ere bada.

Dena den, bai Martin Berasategi baita bere langileek ere nabarmendu dute ez duela zertan ideia osoa hartu eta orain arte egindakoa baztertu.

Ostiraleko saioak "ideiak hartzeko" balio dezake, gero-gera tabernan "norberaren behar edo interesetara" moldatuz.

Goikoetxeak ez du uste "tresna garestirik edota teknika zailik" behar denik pintxoak hobetzeko. "Askotan, xehetasun batzuk aldatu besterik ez da behar"



Berasategi eta Apeztegia 'Duxelle erara egindako perretxikoak' barrubetetzen.

Ostalaritzarentzat aukera

Berasategiren sutegietatik igarotzen lehena izan da Santxo tabernako Asun Apeztegia. Datorren aste eta hilabeteetan dagoenekoak igaroko dira bertatik.

Uste dute Lasarte-Oriako

ostalaritzak etekina atera diezaiokelea horrelako ekintza bati. Berasategiren iritziz, eskainitako pintxo, ogitarteko edo produktuak kalitate onekoak izateak onurak besterik ez ditu ekartzen.

"Helburua da, beste herri batzuekin alderatuta, Lasarte-Oria ostalaritzan erreferente bilakatzea." Hala dio Berasategi eta, horretarako, bere laguntza eskaini die herriko ostalari eta tabernariei.



Ostirala arratsaldean, perkusio edo dantza tailerra eta haurrentzako jokoak izan ziren Jaizkibel plazan.



Dinbi Banda eta Jalgune elkarteko lagunak ere izan ziren jaialdian parte hartzen.

Herrialdeak elkar ezagutuz

Herritar ugari hurbildu da Multikultur Fest-era

Larunbatean egun osoko jaialdi anitzaz amaiera eman zitaion **Multikultur Fest** asteari. **Musika, dantza, haurrentzako ekin-tzak... denetarik izan zen Lasarte-Orian bizi diren herrialdeeta-ko kideek elkar ezagutu eta bizikidetzat sustatzeko.**

TXINTXARRI

Gu ere, lasarteoriatarak gara” horrela agurtu ziren Lasarte-Orian dauden herrialde edo elkarte ezberdinetako ordezkariak Anitzen sareak Semblante Andaluzen ostegunean antolatutako ekitaldian. Mali, Sahara, Peru, Mongolia... banaka edo taldean oholtzara igo eta esaldia esan zuten.

Baina ekintza honen aurretik Manuel Lekuona kultur etxetik atera eta Semblante Andaluzen egoitzera ibilbide berezia egin zen ‘Oaintxe in deu’ txarangaren laguntzaz.

Kukuka eskolako dantzak eman zion hasiera ibilbideari. Rahma Islam elkarte, Extremadura Etxea eta San Pedro elizan izan zituen geldialdiak ibilbide berezi honek. Elizaren geldiuanean, Nikaraguako komunitatea egon zen. Elkarte edo kideek haien berri ematen zuten.

Semblanteria iristean, Semblante Rociero koruak abestitxo bat eskaini zuten harrera

egin eta ekitaldiari hasiera emateko.

Amaitzeko, ‘Bidegurutze’ abestia ere entzun ahal izan zen.

Bestalde, Venezuelako Javier Pavia abeslariarekin ederki gozatu zuten Arkupe taberna-ara hurbildu ziren lagunak.

Tailerrak eta jokoak

Ostirala arratsaldean, ekin-tzak Jaizkibel plazan burutu ziren.

Haurrentzako tailerrak eta jokoak izan ziren nagusi. Jalguneren magia ikuskizuna, bertsoa eta Pausoka-pausoka abestia edo Dinbi Banda batukadaren erritmoek eta Dj Aitorren abestiek dantzan jarri zuten plaza.

Txokolate gozoa ere dastatu ahal izan zuten plazara hurbildu ziren guztiek.

Eta giro ederrean, karaokea lehiaketa ere izan zen 2kain okindegian.

Ekintzaz betetako eguna

Larunbatean jaialdiak Landaberri BHI aurreko plazan jarraitu zuen goizean; arra-

tsaldean berriz Okendo plaza leku aldatu zen.

Udal Musika eskolako tritixen doinuek herriko kaleak alaitu zituzten. Tailerrak eta haurrentzako jokoak izan ziren, bidezko merkataritza eta produktu arabiarren postuak ere izan ziren bertan.

Kukuka antzerki eta dantza taldeko kideen emanaldiaz eta ‘Haurren abestiak’ saioaz gozatu ahal izan zen euria hasi baino lehen.

‘Nigeria Canta’ko lagunak, berriz, Pablo Mutiozabaleko etxebizitzako arkupeetan egin behar izan zuten haien emanaldia.

Eta paella herrikoia ere Udaletxeko arkupeen babesera egin behar izan zuten.

Tebal elkarteko haima ere arkupeetan jarri zen. Honetan, tea dastatzeaz gain, hennarekin apaindu ahal izan zituzten esku eta besoak haurrek.

Arratsaldeko egitarauari hasiera emateko, Erketz EDTko kideek agurra dantzatu zuten.

Zero Sette orkestraren jai banda, ‘Bolivia baila’, Zambra taldearen dantzak, euskal kantariei omenaldia eta Bollywood dantzak ikusi ahal ziren Okendoko oholtzan.

MultiKultur Festi amaiera emateko Pangea eta Flame Door taldeen kontzertua izan zen.



Okendo plazan musika eta dantza emanaldiak izan ziren nagusi arratsaldean. Tebal elkartearen haima ere izan zen bertan.

Musika, dantza, tailerrak, jokoak izan ziren larunbata goizean Landaberri BHI aurrean.

ERRUGBIA.-

Liga erregularrean erakutsitakoa berrestera

Datorren astean hasiko ditu Babyauto Zarautzek Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketak

21 garaipen eta porrot bakarra. Hori da Babyauto Zarautz taldearen balantzea, liga erregularrean. Ohorezko B mailako iparraldeko multzoko txapel-duna izan da, alde handiz; 99 puntu poltsikoratu ditu, bigarrenak baino hamahiru gehiago. Merezitako atsedena hartzen ari dira orain, datorren asteko larunbatean Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketei ekin aurretik. Burgosko Aparejadores izango dute aurkari. Itzulikoa Zarautzen jokatuko dute.

IÑIGO GONZALEZ SAROBE

Apirilaren 24a. Egutegian data hori dute gorritz markatuta Babyauto Zarautz taldeko jokalariek. Egun horretan ekingo die taldeak Ohorezko Mailara igotzeko kanporaketei. Aurkaria, Burgosko Aparejadores. Kantxa-abantaila zarautzarren aldekoa da. Hortaz, itzuliko norgehiagoka etxean jokatuko dute; Asti zelaian, hain justu.

Abantaila hori ez zaie erori zerutik. Liga erregular bikain bat egitearen ondorio izan da: 22 partida jokatu dituzte, eta bakarra galdu –Durangoren kontra–. 99 puntu bildu dituzte Fran Puertasek zuzendutako jokalariek, bigarrenak baino hamahiru gehiago.

Orain arte erakutsitakoa berrestea dagokio orain tal-

deari. Badakite ez dela samurra izango esku artean duten erronka gauzatzea, baina dena dena emango dute hori lortze aldera. Lesio eta lan-kontuak tarteko, taldeko jokalariek guztiak ez ditu edukiko bere aginduetara entrenatzaileak, baina hori ere ez da oztopo izango.

Herritar ugari taldean

Entrenatzaileak behar izan dituenen, beti egon dira jokatze prest Beltzak taldearen harrobitik atera diren hainbat herritar. Ander eta Xabier Rekondo anaiak, Julen Aristorena, Beñat Arroyo eta David Vega aritu izan dira denboraldi honetan zarautzarrekin.

Ligako azken jardunaldian ere izan zuten ordezkariak Lasarte-Oriak: Xabier Rekondo eta David Vega hasieratik aritu ziren, eta bigarren zatian



Iaz Alcobendasen kontra jokatu zuten kanporaketa Babyautok. Irabazi ez zuten arren, maila bikaina erakutsi zuten.

zelairatu zen Ander Rekondo. Beste garaipen bat zakuratu bazuten ere, zapore garratzeak izan zen, orduko horretan aurkari izan zuten La Unica RT talde nafarrak kategoria galdu zuelako.

Kanpoko taldeak ongi asko zekien hil ala bizikoa zela neurketa hori. Gauzak horrela, Asti zelaira oso kontzentratuta irten ziren, eta abantaila polita lortu zuten aurreneko minutuetan: 0-9. Atsedendira ez ziren iritsi emaitza horre-

kin, ordea, Babyautok lortu zuelako alde murriztea: 5-9.

Bigarren zatian zarautzarrek erakutsi zuten multzoko txapel-dun izatera ez direla iritsi kasualitatez, eta norgehiagoka irabazi zuten, 17-12.

Emaitza horrekin, kategoria galdu zuten La Unicak. Puntuak ez zituzten eraman Asti zelaian, baina bai Babyauto taldeko jokalariek, entrenatzaile eta zaleen aitorza eta errespetua: pasiloa eta txalo zaparra-da eskaini zizkieten nafarrei.

Autobusa Burgosera

Arestian esan bezala, kanporaketako joaneko norgehiagoka Burgosen jokatuko du Babyauto Zarautzek, apirilaren 24an.

Egun horretarako autobusa antolatu dute zaleek. Aritzbatalde taberna parean (Zarautz) jarri dute hitzordua, 9:00etan. Izena emateko 629 95 24 78 telefono zenbakira 'whatsapp' mezu bat bidali beharko dute interesa dutenek. Bost euroren truke, garraioa eta hamaiketako izango dute.

SASKIBALOIA.-

Ostadar SKTko hainbat kide, Buesa Arenan

Edozein aitzakia da ona saskibaloiaz gozatzeko. Puntapuntako partida bat ikustea, zer esanik ez. Ostadar SKTko saskibaloialorretan murgilduta dabiltzan 55 pertsona Gasteizko Buesa Arenara joan ziren ostiral arratsaldean, Laboral Kutxa Baskonia taldea animatzera.

Top16an maila paregabea eman eta multzoko bigarren gisa sailkatu eta gero, Euroligako final laurdenak jokatzen ari da talde gasteiztarra, Panathinaikos talde greziar ahaltzuaren kontra. Joan den ostiralekoa kanporaketako bigarren norgehiagoka izan zen –asteazkenean jokatu zuten lehenengoa; Baskoniak irabazi zuten, 84-68–.

Sekulako partidaz gozatu zuten; 82-78 irabazi zuten Baskoniak, luzapenean. 2-0 aurreratu dira seriean; partida bat gehiago irabazi behar dute



Ostadar SKTko kideak, Gasteizera autobusa hartu aurretik.

Perasovicen jokalariek lauko finalera sailkatzeko.

Ez dira egunero ikusten maila horretako partidak, ostiralean autobusa lepo bete zuten saskibaloizaleek erakutsi zutenen. 20 euroren truke eskuratu zituzten sarrera bana eta garraioa, joan eta itzulikoa. Aurtengoan behin baino

gehiagotan joan dira Ostadar SKTko jokalariek zein entrenatzaileak Buesa Arenara. Aste Santuko oporraldian, 'zigorren eltxetxuko' dirua baliatuz, top16ko neurketa batez gozatu zuten Partizipazioko junior neskek: Laboral Kutxa Bartzelonaren aurka. Gasteiztarrek irabazi zuten, 75-71.

SQUASHA.-

Abian da herriko squash txapelketa soziala

Apirilaren 7an hasi zen Lasarte-Oriako XVIII. Squash txapelketa soziala, Udal Kiroldegian. Aurtengo edizioan Buruntzaldeko hamalau jokalarik eman dute izena. Zazpiko bi multzotan daude banatuta. A multzoan Iñaki Garcia –iazko txapel-duna–, Aitor Tejero, Toño Perez, Oswal Cañedo, Raul Mateos, Alex Garcia eta Iker Cañedo ari dira lehian. B multzoan, berriz, hauek: Kinin Calvo –pasa den urtean txapel-dunordea izan zen–, Xabier Azaldegui, David Miguel, Xabi Amiano, Imanol Olaizola, Dani Davila eta Eneko Gartzandia.


Aipatu parte hartzaile horiek ligaxka jokatuko dute maiatzaren 5era arte. Ondoren, emaitzen arabera, txapel-dunen fasera sailkatuko dira batzuk eta kontsolaziora besteak. Lehenengo fase horretako partidak Udal Kiroldegiko kantxan jokatzen ari dira, astelehenean ostiralerara, 19:00etatik 21:00etara bitartean.



Hamalau jokalarik eman dute izena aurtengo edizioan aritzeko.

Agenda

Ostegunetik igandera, Lasarte-Oria



Bertso-eskolaren 25. urteurrena

Lasarte-Oriako Erra! bertso eskolak 25 urte beteko ditu aurten. Urtemuga berezi hau ospatzeko herritar guztiei zuzendutako hainbat ekintza antolatu ditu aste honetan zehar. Saio guztiak doakoak dira.

XIRIMIRI ELKARTEA
Osteguna 21, 19:30ean
Andoni Egañarekin tertulia ederra izango da.

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 22, 22:30ean
Lasarte-Oriako Erra! eta Gabiriko bertso eskolen arteko 'Bertsotruk' desafioa egingo da.

XIRIMIRI ELKARTEA
Larunbata 23
Lasarte-Oriako Erra! Bertso eskolako ikasle eta ikasle ohien bazkaria ospatuko da.

FURIA BELTZA TABERNA
Igandea 24, 19:00etan
'Ez da kasualitatea' bertso emanaldi musikatuaz gozatu ahalko da.

Oihana Iguaran, Miren Amuritz, Alaia Martin eta Ane Labaka herritarra izango dira kantuan.

Amaitza Agirrek gai jartzaile lanak egingo ditu. Ixak Arruti gitarra jolea eta Eneko Sierra saxofoi-jotzaile izango dira saioa musikaz girotuko dutenak.

Lasarte-Oria

Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 19, 18:30ean

Josu Martinez idazlearen laguntzaz 'Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak' liburuko kontakizunak aztertuko dituzte Irakurle Txokoko lagunek.

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 22, 19:30ean

Danak Kide elkarteak antolatutako X. Musika Topaketan barruan, Javier Busto musikagile hondarribitarrak zuzendutako Aqua Lauda ahots zurien abesbatza izango da berriro ere herrian.

Udaltop

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 21 eta ostirala 22

Udaltop Udaletako Euskara zerbitzuen Topaketak aurten ere Euskal Herriko euskara zerbitzuetako kideak eta euskara adituak bilduko ditu Lasarte-Orian. Aurtengo gaia, 'Kirola D eremuan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?' da.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 24, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'Kung Fu Panda' filma proiektatuko dute. 3Dn ikusi ahalko da. Sarrera, 4,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 24, 19:30ean

Helduentzako zinema atalean, 'Cien años de perdón' filma proiektatuko dute.



Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 23, 20:00etan

Herritarrek 'Celebration' proiektio digitalaz gozatu ahalko dute. Lan hori John Williams konpositorearen ibilbidean dago oinarritua -ezaguna da nazioar-

tean; Star Wars filmeko soinu bandaren egilea da, besteak beste-. Sarrerek 7,50 edo 9,00 euro balio dute.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Apirila amaiera arte

Loreto Otaegiren margo eta egurrezko lanak ikusgai.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Apirilaren 24ra arte, asteleheneetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara

Ttakun KEko aisia eta gaztea sailek 25 urte hauetan antolatutako hainbat ekintza eta egitasmoko, hala nola, Amaraun Kluba, Gazte Kluba, kanpaldi edo Udako Txokoetako argazkiak ikusgai izango dira.

Herritarren txokoa

IKTen inguruko hitzaldia Zubietan

IKTen, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilerari buruz hausnartuko dute hilaren 20an, 18:00etan, Zubietako guraso elkarteak antolatutako hitzaldian.

Baikarako, Gipuzkoako Ikasleen Guraso Federazioko Esther Martinezek hitz egingo du Zubietako Kaxkape elkartearen.

Udaberri Festako marrazki erakusketa

Lasarte-Oriako Merkatarien elkarte den Aterpeak, iazko Udaberri Festan antolatu zen marrazki erakusketaren arrakasta ikusita, egitasmoa berriro antolatzea erabaki du.

Erakusketako gaia Lasarte-Oriaren 30. urteurrena izango da. Hori dela eta, herriko txoko kuttunena marraztu beharko dute.

3 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendutako erakusketa da. Zumaburu liburudendan edota Kattagorri jolasdendan eskuratu ahal

izango dute marrazkia egiteko kartoi mehea.

Apirilaren 30a bitartean kartoiak jaso zuten leku berean aurkeztu beharko dira marrazkiak.

Aterpeak, bere aldetik, maiatzaren 9tik 13ra jarriko ditu ikusgai bere saltokietan. Egun horietan, hurrek haien marrazkiak bilatu beharko dituzte Lasarte-Oriako dendetan. Aurkituz gero, oparitzo jasoko dute.

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean apirilaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Eskutitza

Axier Lopezi eta Argiari elkartasuna

Idatzi honen bidez, TOKIKOMen Administrazio Kontseiluak bere elkartasun eta babesa eskaini nahi die Axier Lopez kazetariari eta Argiaren lan talde osoari, Naroa Ariznabarretaren atxiloketaren berri emateagatik zigorra jaso duten honetan.

Espainiako Gobernuak Herritarren Segurtasunerako 4/2015 Lege Organikoa, "Mozal legea" gisa ezagutzen dena aplikatuz ezarri du zigorra. Lege hori eraso zuzena da herritarrek informatuta egoteko zein kazetariak informazioa emateko duten eskubidearen aurka.

Informazioa jaso eta emateko eskubide horiek gizarte demokratiko baten funtsezko oinarriak dira. Eskubide horiek gauzatzea delitu bilakatzea, beraz, gizarte osoaren aurkako eraso da, eta hala salatu nahi dugu mezu honen bidez.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

TOKIKOM
(TXINTXARRI ALDIZKARIA KIDE DEN
TOKI KOMUNIKABIDEEN BATERAGUNEA)



'Amalur' ikuskizunaren bi saio izan ziren Lasarte-Orian. Pirritx, Porrotx, Pupu eta Lorek baserriarren bizitza ezagutu zuten.

Baserriko mundua ezagutzen

Asteartean Irakurle Txokoko saio berria dago

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriak Lasarte-Orian izan ziren larunbatean. 'Amalur' bere lan berriaren bi saioa eskaini zituzten Irakurle Txokoari laguntzeko. Herriko txiki eta ez hain txikiak ederki gozatu zuten.

Baserriaren munduan murgildu ziren larunbatean 'Amalur' ikuskizunaren bi saioak izan ziren. Baserriaren mundua ezagutzeko, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren abentura berriak baserriarren bizitza eta zer eginak azaltzen ditu. Izan ere, Marimototsek baserriaren bizitza ezagutzeko, Pirritx, Porrotx eta Lore bisitan doaz eta milaka gauza ikasten dituzte Ilargi eta Marimototsen eskutik.

Jalgune
Pirritx, Porrotx eta Marimotots ez ziren bakarrik egon oholtzan, lagun berriak aurkezten ditu lanak.

Jalgune

Baina hauetaz gain, pailazoaren oso ezagun diren Jalgune elkarteko lagunak ere izan

ziren bi saioetan. Elkarteko gazteek erritmoa dutela erakutsi zuten ikuskizuneko hainbat abestietan.

Eta amaieran ere bertan izan ziren 'Pausoka Pausoka' edo 'Eskuetan' abestia dantzatzeko.

Gainera, bi kideren urtebetetzeak ziren asteburu honetan Joxerra eta Anerena eta zorianak zuri abestu zieten aretoko laguntxo guztiek pailazoekin batera.

Ostean, 'Maite zaitut' abestia dantzatu zen eta amaieran guztiek argazkia atera zuten elkarrekin.

Irakurle Txokoaren alde

Lasarte-Oriako pailazo bihurriek larunbatean eskainitako bi saioak Irakurle Txokoari laguntzeko antolatu ditu. Izan ere, Irakurle Txokoak bere jar-

duna aurrera eramateko, diru iturri propioak erabiltzen ditu eta hau eskuratzeko hainbat ekintza burutzen ditu urtean zehar.

Hitzordu asteartean

Eta ekintza berezi honetaz gain, asteartean hilabete honetako hitzordua dute Irakurle Txokoko kideek.

Martxoko saioan landu behar zuten irakurketa aztertuko dute saio honetan, Josu Martinez idazle bilbotarraren 'Tunelak, izarak, moztarrok eta bafleak' liburua, hain zuzen ere..

Euskal gatazkari lotuta, azken 50 urteetan gertatu diren hamar ihesaldi eta ihes-ahaleginen kronika kontatzen ditu liburua.

Danele Sarriugarteren laguntzaz gain, idazlea beraren analisia entzun ahalko dute, Josu Martinez bertan izango baita.

Kronika hauen guztien nondik norakoak asteartean, 18:30ean, Manuel Lekuona kultur etxean aztertuko dituzte Irakurle Txokoko lagunak.



Jalguneko lagunak izan ziren pailazoekin dantzan eta amaieran argazkia atera zuten.



Haur eta helduek pailazoei dieten maitasuna erakutsi zuten saioak amaitzean.



Errenta Aitorpena Euskaraz Batu eta Gehitu Etekina

Apirilaren 11tik Ekainaren 25era. Euskara Lehenetsi!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>

f Albisteak elkarbanatu eta oparia eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil

Udal Euskara Batzordeak

